Entre las empresas con las que trabaja el Grupo de Mecánica de Fluidos destacan Fagor Electrodomésticos, Maier y el Centro Stirling, entre otras.

Ámbito de la salud

Conviene destacar por su importancia actual, el ámbito de la salud. Hace cinco años, el grupo abrió una nueva vía de trabajo en este sector, y a fecha de hoy tiene numerosos proyectos, principalmente con Laboratorios BTI, con la Unidad Oncológica del Hospital de Elche, Ikerlan y CSIC. El Grupo de Mecánica de Fluidos aporta sus conocimientos a escala microfluidica para mejorar la salud y el bienestar, desarrollando una medicina personalizada.

Reconocimientos excepcionales

Todos estos trabajos y proyectos tienen su entidad y, por consiguiente, su reconocimiento. Por ello, recientemente al Grupo de Mecánica de Fluidos le ha sido otorgado el grado de excelencia tipo A por el Departamento de Educación, Universidad e Investigación del Gobierno Vasco. Dicho reconocimiento, de excelencia, tiene un peso muy relevante dentro del ámbito de investigación, y trae consigo una financiación de seis años para equipamiento, actividad, laboratorio y personal.

A dicho reconocimiento, le sigue otro de la mano de la Agencia Espacial Europea, con quien el Grupo de Mecánica de Fluidos de EPS está trabajando en un proyecto para el desarrollo de experimentos en la estación espacial internacional.

GEP

Trabajando en la mejora continua de los procesos de producción por mecanizado

LA LÍNEA DE INVESTIGACIÓN DE MECANIZADO DE ALTO RENDIMIENTO DE MU TIENE COMO PRINCIPALES OBJETIVOS LA MEJORA DE PROCESOS DE PRODUCCIÓN POR MECANIZADO EN DIFERENTES SECTORES INDUSTRIALES (AUTOMOCIÓN, AERONÁUTICA, MEDICINA, MÁQUINA-HERRAMIENTA, MOLDES Y ESTAMPAS...) Y LA GENERACIÓN DE IDEAS PARA FABRICAR PRODUCTOS INNOVADORES O ENTRAR EN NUEVOS NEGOCIOS Y MERCADOS.

Áreas de investigación

El área referente al mecanizado a alta velocidad es hoy en día una realidad industrial en sectores tan diversos como el aeroespacial o el de moldes y matrices. Tras haber trabajado en la optimización del mecanizado a alta velocidad de aceros endurecidos y formas complejas para su aplicación en la fabricación de moldes y matrices, actualmente se está trabajando en la optimización del proceso de mecanizado a alta velocidad del titanio para su aplicación en el sector aeronáutico.

En el caso del micromecanizado, el desarrollo de las tecnologías de miniaturización se ha convertido en una tendencia generalizada que está afectando al mercado en diferentes sectores industriales, como las telecomunicaciones, electrónica de consumo, defensa y biomedicina. Además de generar conocimiento para mejorar el

rendimiento del micromecanizado, el fin que se persigue es el de transferir el conocimiento de proceso a la industria, colaborando con la misma en el desarrollo de productos y mejora de procesos de micromecanizado.

El rectificado es un proceso de fabricación orientado a la obtención de piezas con buen acabado superficial y estrechas tolerancias geométricas y dimensionales, que puede verse afectado de forma perjudicial por la presencia de vibraciones y el particular comportamiento de las muelas abrasivas. En este ámbito, y hasta la fecha, se han alcanzado resultados relevantes a través de la realización de varios proyectos de investigación orientados a la optimización del proceso, predicción de daño térmico y elaboración de criterios para la selección de muelas abrasivas idóneas.

En el estudio del mecanizado se trabaja en detectar la influencia

de los parámetros de corte sobre valores alcanzados por diferentes variables termomecánicas (temperatura, tensiones, deformaciones, fuerzas...) durante la formación de viruta. Este conocimiento es la base para conseguir una optimización del proceso definiendo condiciones de corte, geometrías de herramientas y/o incluso diseñando nuevos materiales.

La maquinabilidad se define como la aptitud que presenta un material frente al proceso de mecanizado. Existen diferentes criterios científicos (fuerzas, temperaturas,...) e industriales (fin de vida de herramienta, acabado superficial...) que ayudan a medir esta propiedad, aunque no existe una definición universalmente aceptada de la misma. Actualmente se está trabajando activamente en desarrollar un conocimiento sólido sobre este campo que llevará tanto a fabricantes de materiales como herramentistas, empresas mecanizadoras y usuarios finales.

Los objetivos de la Ingeniería basada en el conocimiento (KBE) son la personalización de software CAX en aras de incrementar su productividad, conservar el conocimiento sobre el producto en la empresa e integrar más fácilmente las nuevas incorporaciones.

La línea de investigación tiene un estrecha relación con las empresas del entorno (ITP S.A., BTI, Novalti, Kendu, Sidenor, Danobat, Sapa Placencia, Fagor Automation y Grupo Manhattan...) consiguiéndose la financiación a través de las propias empresas o de programas de apoyo a proyectos de administración pública. Además, hay que resaltar que el grupo ha realizado más de 60 publicaciones en revistas especializadas y ha tomado parte en varios congresos de ámbito nacional e internacional.

DANOBAT TV700 ZUTIKAKO TORNUA

Errendimendu handiko mekanizazio lantaldeko hainbat kide zutikako tornu batekin probak egiten.



Hazitegi, irakasleen sentikortasuna ikertzen

2001ETIK, HAZITEGI PROIEKTUAK LANEAN DIHARDU HUMANITATE ETAHEZKUNTZA ZIENTZIEEN FAKULTATEAN, KALITATEZKO HAUR ESKOLAK BULTZATZEKO. HORRETARAKO, UMEA EROSO EGON DADIN, ESPAZIO, TESTUINGURU ETA ARRETA ONENA NOLA BERMATU AZTERTZEN DIHARDU. LAN ETA AZTERKETA UGARI EGIN DITU, ETA HAUR ESKOLETAKO IRAKASLEEN SENTIKORTASUNA GARATZEKO PROGRAMA LANTZEN DABIL AZKEN BI URTEETAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN. ZENBAT ETA ARRETA HOBEA ESKAINI UMEARI, HAU HAINBAT ETA LASAIAGO GERATUKO DA ETA ESPLORATZEKO ETA JOLASTEKO, HAU DA, GARATZEKO AUKERA HANDIAGOA IZANGO DU.

Hazitegi 2001ean jaio zen, HUHEZIREN baitan egindako kudeaketa planaren hausnarketa batean 0 eta 3 urte arteko tartean formazio, ikerketa eta aholkularitzan hutsuneak zeudela ondorioztatzerakoan. "Ordura arte badirudi zaintza egitearekin nahikoa zela, baina oso adin tarte konplexua da, berebiziko garrantzia eta eragina duena", azaldu zigun Alexander Barandiaran Hazitegiko ikertzaileak.


Proiektuko kideak dira fakultateko irakasle ikerlariak, eta umearen garapena, espazioaren diseinua eta metodologia ikertu dituzte. Horrez gain, HUHEZIKO ikasleei zein kanpokoek, aipatutako gaietan, formazioa, eta hainbat eskola eta erakunderi horri buruzko aholkularitza ematen diete. Espazioaren diseinuan, adibidez, 0-6 adin tarteko hurrentzako espazio berritzaileak sortu dituzte.

Hainbat ikerketa egin ostean, Hazitegiko kideek pentsatu zuten jasotako ondorioak sozializatu eta jakinarazi behar zirela. Hala, dibulgazio artikulua ugari kaleratu dituzte, nazioarteko mintegietan esku hartu dute eta ikasturte honetan bi liburu kaleratu dituzte

Proiektuko kideak dira fakultateko irakasle ikerlariak, eta umearen garapena, espazioaren diseinua eta metodologia ikertu dituzte.

euskaraz: bata, aztertutako oinarri teorikoei buruzkoa izango da; eta bestea, Hazitegiren hezkuntza proposamena, espazioaren antolaketa eta beste.

Berebiziko garrantzia izan zuen, halaber, Leidengo (Herbehereak) unibertsitatearekin batera haur eskolen alorrean egindako ikerketa konparatiboak: *Child care quality and children's cortisol in Basque Country and the Netherlands*. Bi herrialdeetako haur eskoletako irakasleen sentikortasun maila eta umeen garapena jarri zituzten parean.



Hazitegik ondorioztatu du irakaslea umearen beharrei (afektiboak batez ere) zenbat eta sentikorragoa izan, ahalik eta eragin positiboagoa duela umearengan.



Sentikortasuna hobetzea

Hazitegiren helburua da haurren garapen osasuntsua bermatzea. Horretarako, testuinguru onena aurkitu nahi du, hau da, haur eskola onena nolakoa behar den. Eta ikerketa baten jaso zuen klabea dela irakaslea eta bere sentikortasun maila. Sentikortasuna atxikimendurakin lotuta dago: umeak helduarekin eraikitzen duen lotura afektibo esanguratsua. Hortaz, Hazitegik ondorioztatu du irakaslea umearen beharrei (afektiboak batez ere) zentratu eta sentikorroagoa izan, orduan eta eragin positiboagoa duela umearengan. Umeak helduaren disponibilitatea behar du eta honek, esate-

rako irakasleak, umeen seinaleak antzemateaz gain, ondo interpretatzen ikasi beharra du, laster eta ondo erantzuteko. “Umeak arreta edo laguntza behar duenean, irakasleak premia hori asetzen badu, jolasten eta esploratzen jarraituko du; eta esplorazioa da, hain justu, garatzen laguntzen diona. Beharrak ase baditu, lasai badago, hobeto jolastu eta hobeto garatuko da umea”, azpimarratu dute.

Ikerketa bideo-feedback bitartez
Hazitegik taldean egiten du lan, eta Sentikortasuna Garatzeko Programa ere hala egiten dihardu. 1-2 urte

bitarteko ikasgela batzuetan ume eta irakasleen portaera bideoz grabatu, aztertu eta taldera eramaten dute eztabaidatzeko. Horren ostean, irakaslearengana joaten dira ekarpenak erakutsi eta *feedback* emateko. Helburua da irakaslea formatzea umeen seinale horiek nola antzeman, interpretatu eta egoki erantzuten ikasteko. Horren harira, Barandiaranek argitu digu arazo handi bat irakle-irakasle ratioa dela: “Zoritxarrez, irakle eta irakasle arteko ratioa handiegia da; hala, zaila da ume guztiei ondo erantzutea, nahiz eta irakaslea sentikorra izan. Gaur egungo erdira-edo jaitsi beharko litzateke: adibidez, 0-1 adin tartean irakasle bakoitzak zortzi ume izan beharrean, lau da kopuru egokia”.

“Umeak arreta edo

laguntza behar duenean,

irakasleak premia hori

asetzen badu, jolasten eta

esploratzen jarraituko du”.

Ikasgela eredia aldatzea

Bestalde, Hazitegik oso presente dauka eskola eredia aldatu beharra. “Eskola txikiaren ildotik, naturalagoa da adin desberdinetako umeak elkarrekin egotea, hala da eskolatik kanpo eta hala izango da beraien bizitza osoan. Ez du zentzurik adin bereko gelarik egotea, ez bada homogeneitate printzipioa jarraitzeko, hau da, aniztasuna ukatzen duen eredia, tradizionaliki egon dena, baztertzaila eta segregatzailea”, azaldu du Barandiaranek. Eta ez hori bakarrik, diseinuari garrantzia ematen diote Hazitegin: “Horma asko soberan daude, espazio gardenak behar ditugu, txoko desberdinekin eta hiru dimentsiotan esploratzeko proposak direnak. Umea erakarri egin behar du espazioak eta eroso sentiarazi. Era berean, espazio horietan umeendako elementuak sartu behar dira, baina era harmonizatuan”.

Openbasque, eraberritze irekia gauzatzeko agertoki guztiak ikertzen

MIK (MONDRAGON IKERKETA KUDEAKETAN) SORTU ZENETIK, BURU-BELARRI DABIL BERRIKUNTZA GAUZATZEKO PERTSONEN ETA BALIABIDEEN KUDEAKETAN. IAZTIK, GAINERA, JAURLARITZAK FINANTZATZEN DUEN ETORTEK PROGRAMAREN BARRUAN MIKEN LIDERGOPEAN AURKEZTUTAKO OPENBASQUE PROIEKTUA ONARTU ETA IKERLAN, TECNALIA ETA EHU ERAKUNDEEKIN BATERA LANEAN DIHARDU DAGOENEKO. MIKEKO PROIEKTUEN KOORDINATZAILE DEN JON ALDIZABAL- EK EMAN DIZKIGU AZALPENAK.

Badira 10 urte MIK (Mondragon Ikerketa Kudeaketan) sortu zela Mondragon taldearen baitan, eta horietatik bi daramatza Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko ikerketa zentru moduan integratuta. Bide batez, MIKeko lantaldeko profila honakoa da: ikerlaria, eskolak ematen dituena, enpresetan ematen diren kudeaketaren alor desberdinekin zerikusia duten arazo eta posibilitateak transferentzia proiektuen bidez lantzen eta ikasleei ezagutza hori modu aproposalan transferitzen diena. Hortik abiatuta egiten du lana, bereziki berrikuntzaren kudeaketan zentratuta.

MIK sortu zenetik, erakunde desberdinek enpresetan berrikuntza sustatzeko abiarazten dituzten proiektu edo programei so egoten da eta horiei zuzenduta hainbat proposamen egiten ditu. Hala, orain arte hainbat proiektu lortu ditu eta horiekin buru-belarri ibili ohi da lanean. Horietako bat Jaurlaritzaren Etortek finantzazio programaren baitan dagoen Openbasque da. Berau MIKek aurkeztu zuen, eta onartua izan da. Hala, aurretik indarrean dagoen partzuergoa dabil lanean orain ere bi urte eta erdiko iraupena izango duen proiektu honetan. Ikerketa lankidetzarako partzuergoa honako hauek osatzen dute: Ikerlan, EHU (Sarrikoko Enpre-

sa Zientzien fakultatea), Tecnalia eta MIK, hain zuzen ere.

Hasieratik ikerketak kontrastatu

Hala ere, proiektu erraldoietan sakontzeaz gain, Etortek programaren baitan MIKEN eta partzuergoko gainontzeko kideen ideia da Euskal Herriari traxiodunak izan diren enprekin elkarlanean lan egin eta guztiek prozesu horretan gehiago ikastea. Besteak beste, Openbasque proiektuaren baitan honako enprekin hartuko dute parte: Fagor Elektratresnak, CAF, Orona, Orbea, Fagor Ederlan, Gureak Taldea, Euskaltel, Eroski eta Hobe Hettich... Asmoa da, lehenik eta behin, enpresa hauekin ikerketa orokorra egitea

“Openbasque proiektuan,

Fagor Elektratresnak, CAF,

Orona, Orbea, Fagor

Ederlan, Gureak, Euskaltel,

Eroski, Hobe Hettich eta

MIK ari dira elkarlanean”

eta horren ostean, enpresa bakoitzaren beharren arabera, proiektu zehatz batzuk prestatzea, beti ere testuinguru beraren barruan. Hala, ikerketa orokorra egitearekin bat, nahi dutena da bien bitartean enpresa txikiagoetan aplikazio horiek kontrastatzea, hain zuzen ere. Are gehiago, MIKek Openbasque deritzon ekimenean profil eta mota oso desberdineko enprekin lanean dihardu: zerbitzuetakoak, industrialak, balio erantsia duten ekoizpenekin, bestelakoekin... Ez dago baldintza zehatzik, MIKek beti dauka horiekin nola lan egin, eta kontraste horietatik zer ikasi.

Eraberritze irekia

Openbasque proiektuan lantzen dabilzan kontzeptu garrantzitsua da Eraberritze Irekia da (gaztelaraz Innovación Abierta deritzona). Hori lantzeko arrazoia da bertako enpresek duten joera nagusiarekin apurtu nahi izatea; hau da, kanpokoarekin harremanetan jarri gabe enpresa barruan erabaki, sortu eta ekoizteko ohitura. Hain zuzen ere, MIKek Openbasqueren baitan proposatzen duenaren arabera, enpresetan epe erdi edo luzera produktu edo zerbitzu berriak eskaintzeko hausnarketa egin eta baliabideak jarri behar dira; eta hori ez da askotan egiten.

Bost agertoki

Berrikuntza irekia aztertzerakoan, MIKek bost agertoki nagusi hartu ditu kontuan, eta horiek guztiak ondo kudeatzea da helburua. Lehena, enpresa edo erakunde barnekoa da. Hala, berrikuntzari begira enpresa barruan mekanismoak eta dinamikak abiaraztea eta erantzukizunak hartzea. Bigarrena, beste enpresa edo eragile batzuekin lankidetzatza sustatzea produktu berriak sortzeko.



Hirugarrena, enpresaren bezeroek berorren produktu eta zerbitzuei buruz duten ezagutzaz baliatu eta hortik abiatuta produktuen aldaketako produktu berriak irudikatzea. Laugarrena, herritarrei iritzi edo ideiak eskatu eta horiek enpresaren berrikuntzarako erabiltzea. Eta bosgarrena, gizartearen garapena eta tendentziak aztertzea jendeari iritzirik eskatu gabe; gero, hori enpresaren mesederako aplikatu ahal izateko.

Bost agertoki horietan pertsonak daude erdian, baina baliabide asko behar dira benetako berrikuntza garatzeko; hala nola, negozioa egiteko moduak berri, teknologia, baliabide eta pizgarriak abiaraztea besteak beste. Baita erakundeek berrikuntza horiek gauzatu ahal izateko martxan jar ditzaketen politikak ere. Horrekin lotuta, Eraberritze Irekiarekin zuzenean lotuta dagoen eta MIKek programa honetan erabat jorratzen dabiren beste kontzeptu bat da Elkarrekin Sortzea

“Openbasque programak bi urte eta erdiko iraupena izango du. 2010eko irailean jarri zuten martxan eta oraingoz ikerketa hauen gainean beste leku batzuetan egin dena aztertzen dabilta.”

(gaztelera Co-creación). Hain zuzen ere, beste enpresa edo eragile batzuekin batera sortzea, eraberritzea...

Aurretik ikertutakoa aztertu

Openbasque programak izatez bi urte eta erdiko iraupena izango du. 2010eko irailean jarri zuten martxan eta, oraingoz, ikerketa hauen gainean beste leku batzuetan egin dena aztertzen dabilta. “Ikerketa egin aurretik komeni da jakitea zer gartu den eta zer ikerketa egin diren munduko ikerketa zentro puntakoenetan. Hori jakin ostean, kontrastatu beharko dugu guk jorratu nahi dugun ildoa bat datorren aplikatu nahi dugun enpresen nahi eta premiekin”, azaldu digu Jon Aldazabalek.

Hala, kontrastatze horrek emaitza onak ematen baditu, bigarren urtean enpresa konkretuekin proiektu zehatzak definitu eta, jarraian, horiek aurrera eramango dituzte.

JON ALDAZABAL

El investigador de Soraluze y miembro de MIK lidera el proyecto Openbasque integrado en el programa Etorrek financiado por el Gobierno Vasco.

Procesos avanzados de conformación de materiales

**IÑAKI
HURTADO**
deustuarrak
koordinatzen du
ikerketa taldea.



EL NOMBRE DEL GRUPO DE INVESTIGACIÓN, “PROCESOS AVANZADOS DE CONFORMACIÓN DE MATERIALES” RECOGE LAS DOS PALABRAS CLAVE DE SU ACTIVIDAD INVESTIGADORA: PROCESOS Y MATERIALES. LA GENERACIÓN DE CONOCIMIENTO PARA EL DESARROLLO Y OPTIMIZACIÓN DE AMBOS COMO UN CONJUNTO ES EL NÚCLEO CENTRAL DE LA ACTIVIDAD CIENTÍFICA DEL GRUPO, SIN PERDER DE VISTA LA FUNCIONALIDAD DEL MATERIAL CONFORMADO Y SU AUMENTO DE VALOR AÑADIDO.

El grupo de investigación, formado por un total de 30 personas, entre ellas siete doctores, una docena de doctorandos y varios becarios y estudiantes que están realizando el proyecto fin de carrera, tiene más de 12 años de experiencia. Una trayectoria marcada por una gran cercanía a las empresas del entorno, como se refleja en el número de proyectos de investigación de carácter práctico realizados y las patentes solicitadas. Esa cercanía ha permitido identificar campos de actividad científica que, a largo

plazo, permitan una transferencia de conocimiento útil para el tejido industrial.

Líneas de investigación

El deustuarra Iñaki Hurtado, coordina el grupo de investigación en la actualidad.

“Nuestra principal línea de investigación es la interacción de materiales y procesos. Es el concepto principal: trabajar y mejorar el material (siempre que se pueda) y optimizar el proceso. Entre nuestras líneas de investigación actuales

cabe destacar: los procesos de deformación de chapa (variable, incremental y superplástico), la deformación en estado semi-sólido y los procesos de fusión de aleaciones ligeras”.

La tendencia actual en el ámbito del conformado es ir cada vez más a la investigación de materiales con características mecánicas superiores y, por lo tanto, de mayor dificultad de procesado. “También estamos intentando desarrollar materiales para aplicaciones biológicas, donde hasta ahora los plásticos han tenido mucha presencia, pero estamos tratando de introducir en este ámbito algunos metales, en concreto el Magnesio”.

Retos de futuro y proyectos europeos

El presupuesto anual destinado a la investigación del grupo de trabajo es de aproximadamente un millón de euros.

“La financiación está basada en programas competitivos, con administraciones y para empresas privadas. Aunque vendemos servicios a corto, nuestro objetivo es el medio y largo plazo”. Asegura Iñaki Hurtado que lo ideal para su grupo de trabajo será establecer relaciones a largo plazo con consorcios empresariales. “Si tejemos relaciones estables con otras universidades, empresas e instituciones europeas investigaremos con más proyección a futuro”.

En la actualidad el grupo liderado por Hurtado está trabajando junto a otras instituciones en un proyecto de las características ya mencionadas, en el que el departamento de MU es el encargado de liderar el proyecto. “En este proyecto tenemos el apoyo de empresas y de otros centros. Este tipo de proyectos nos dan mucha estabilidad”. En estos proyectos intercooperan instituciones, empresas y departamentos internos de Mondragon Unibertsitatea.

GEP

Sistema txertatuak

GEP-EKO SISTEMA TXERTATUEN TALDEA AURRERAPAUZO GARRANTZITSUAK EMAN DITU. PROIEKTU ASKOTAN BURU-BELARRI, ADIMENDUN SISTEMAK TEKNOLOGIA ASKOTAN EZARTZEN DABIL ETA LAU SEKTORE NAGUSITAN EGITEN DU LAN. GAINERA, EUSKO JAURLARITZAREN ESKUTIK ERREKONOZIMENDU BEREZIA JASO BERRI DU, BULTZADA GARRANTZITSUA DENA; ETA IRAILEAN FAKULTATE BERRIAN SISTEMA TXERTATUEI BURUZKO LEHEN MASTERRA ABIARAZIKO DU, ENPRESETAKO JENDEARENTZAT ERE IZANGO DENA.

Miren Illarramendi taldeko koordinatzailea oso pozik dago Eusko Jaurlaritzak eman dien errekonozimenduarekin. Orain dela hiru urte ez zuten onespren berezirik lortu. Oraingoan, berriz, finantzazioa eman diete eta Jaurlaritzak Sistema Txertatuen Taldearen estrategia eta lanildoia goraipatu ditu. “Feed-backa eman eta bide onean gabiltzala erakutsi digu. Hiru urte barru, berriro aurkeztuko gara, errekonozimendua mantentzeko eta, ahal bada, hobetzeko”.

Lau sektore nagusitan

Sistema Txertatuen taldeak lantzen dituen proiektuen artean Illarramendik lau multzo bereiztu ditu: Garraioa, Energia kontsumo egokia, Fabrikazioarekin lotutakoa eta Osasuna.

Garraioaren esparruan auto elektrikoekin lotutako hainbat ikerketa egiten dabilta. Autoen balazten, komunikazio sistemen eta orokorrean kontrol sistemak garatzeko proiektuetan aztertzen dabilta CAFeko Trainticentzat. Bestalde, garraio bertikalari dagokionez, Oronarentzat ere lan asko egiten dute.

Energia kontsumo egokia aintzat hartuta, berriz, etxeetako sistema domotikoetan dagoen informazio hori guztia zentralizatzen dihardute, adimendun sistemak erabilita energia kontsumoa egokia izan dadin. Halako ikerketak Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresarentzat dira. Iberdrola eta Endesarekin lan egiten duen Ingeteam enpresarentzat ere antzeko zereginetan dabilta.

Fabrikazio alorrean ere badute

lana. Enpresek gero eta joera handiagoa dute erabiltzen dituzten erreminten egokitze kontrola eta Health monitoringa lantzeko; hau da, sistema txertatu adimendunei esker, uneoro erremintaren egoera zein den, nolako biziraupena duen edota fabrikazioan ematen duten emaitza kontrola daiteke.

Azkena, Osasunaren alorra litzateke. Aspaldi honetan, adibidez, Fagorrekin eta Matia Fundazioko Ingemarekin lanean buru-belarri dabilta. Eta iaz aurkeztutako Europa mailako proiektu bat ere badute esku artean: *Ambient Assistant Living* deritzona; horren bitartez, Alzheimer gaixotasunaren diagnosi azkar eta hobea egin nahi dute. Bestalde, gaixo kronikoentzat telemonitorizazioa hobetzeko barne proiektuetan ikertzen dabilta; eta Fagorrekin hainbat barne proiektu dituzte osasun alorrean.

Miren Illarramendik azaldutakoaren arabera, sistema txertatuei esker, “gure produktuei balio erantsia ematen diegu, eta jakintza berria gehituta, erantzun oso ona ematen duten emaitzak lortzen dira”. Ez hori bakarrik, “horri esker, gure beharretara askoz gehiago egokitzen diren gailuak izan ditzakegu”.

Masterra, irailean

Irailean abiaraziko dute sistema txertatuen masterra. Diseinu guztia eginga dute eta homologazio guztiak ere bete dituzte. Bi urteko masterra izango da, eta graduetatik joandako ikasleez gain, enpresetako jendea ere gonbidatu nahi dute: “Apropo-sa litzateke enpresetako jendea ere etortzea, gero teknologia adimendun hauek beraien enpresetara eraman ditzaten”. Era berean, enpresetako jendearentzat ere zuzenduta egoteak ekarriko du masterra guztiz presentziala izan gabe, malgua izatea. Gainera, praktikan asko oinarrituko da eta teknologiaren alorrean eskarmentua duten enpresekin hitzarmenak sinatzen dabilta kanpoko adituek ere eskolak eman eta beraien esperientziak konta ditzaten.

MIREN

ILLARRAMENDI

El grupo de Sistemas Embebidos de EPS, coordinado por Illarramendi, ha recibido un notable reconocimiento por parte del Gobierno Vasco. Además, en septiembre pondrán en marcha el Master sobre Sistemas Embebidos.





El valor de la cooperación

Lankidetzaren balioa



*Gerturatu eta erakutsiko dizugu nola
bilakatu ezagutza balio*

Acércate y te demostraremos
cómo convertir el conocimiento en valor.

Berrikuntza denon eskuetan.



GARAIA

*polo de innovación
berrikuntza gunea*

Goiru Kalea 1- Edificio A
Arrasate-Mondragón
20500 GIPIZKOA
Tel: +34 943 038 846
Fax: +34 943 793 999
www.pologaraia.es